



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko otsailaren 17a

22. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- Galdera, Gizarteratzeko eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Batzordea sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, migratzaileak eta errefuxiatuak Hartzeko Nafarroako Sareari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, berdinen arteko mentoretza programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, toki entitateekin eta gizarte-entitateekin kulturen arteko bizikidetzarako ekintzak indartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, integrazioaren aldeko hiri eta eskualdeen sarearen barruan Europako ikuspegia eta begirada duten ekintzak indartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Ollokiko oinezkoentzako pasabide seguruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, A-12 autobiarari eta Pirinioko Autobia deitutakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuko telefono-lineen saturazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, 5G telefonia mugikorraren hedapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan eta haren enplegu-agentzietan aurkeztutako kexak areagotzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, COVID-19aren krisia hasi zenetik enplegu-agentzietan arreta handitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, COVID-19aren krisia hasi zenetik enplegu-agentzietan lan egiten duten langile-kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren orientazio-zerbitzuetan artatutako pertsonen buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko enplegu-agentzietako orientatzaile bakoitzarentzat ezarritako arreta-ratioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Iruñerriko trenbide-sare berriaren proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena iraungitzearen ondorioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

- Galdera, administrarien behin-behinekotasun luzeari buruzko epaiaren ondorioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Parlamentuaren parean jarritako LKN hiri-artistaren kartela kentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Gizarteratzeko eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Batzordea sortzeari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Gizarteratzeko eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Batzordea sortzeari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hau egin du (10-20/PES-00299), Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Harremanik edo egutegirik ezarri al da Gizarteratzeko eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Batzordea sortzeko, helburu analitiko eta proposatzaileekin?

Hona hemen erantzuna:

Bai, dagoeneko harreman informalak ezarri dira, une egokia iristen denean batzorde hori

modu formalean eratzeko. Hain zuzen ere, batzorde hori eratzeko kontratua sinatu zain gaude. Batzordearen lana 2021eko urtarrilean hastekoa da, eta 8 hilabete inguru iraunen du.

Gizarteratzeko eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Batzordearen sorrera Nafarroako Kulturen arteko Bizikidetzaren Planaren barnean planteatu da, eta horren egoeraren berri zehatza eman zitzaion parlamentari horri 10-20/PEI-00712 eta 10-20/PEI-00571 informazio eskaeretan, bai eta 10-20/PES-00178 idatzizko galderaren erantzunean ere.

Kulturen arteko Bizikidetzaren Plan horren egoeraz argibide gehiago emateko, esan behar da prozesu administratiboa atzeratuta gelditu dela, alarman egoera dela eta epe administratiboak eten direlako, eta horrek galarazi duela bete beharreko izapideetan aurrera egitea. Plana egiteko lizitazioa jada adjudikatuta dago eta 2021eko urtarrilean ekinen zaio lanari; eta 2021eko aurrekontuetan 66.550 euroko aurrekontu-lerroa esleitu zaio.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 16an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

## **Galdera, migratzaileak eta errefuxiatuak Hartzeko Nafarroako Sareari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, migratzaileak eta errefuxiatuak Hartzeko Nafarroako Sareari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hau egin du (10-20/PES-00300), Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Eratu al da Migratzaileak eta errefuxiatuak Hartzeko Nafarroako Sarea edo izapideak abiatu al dira organo berri bat eratzeko, Nafarroan migratzaileak eta errefuxiatuak hartzeko protokoloen prestaketa, jarraipena eta ebaluazioa egite aldera?

Hona hemen erantzuna:

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia eratu eta berehala, garrantzitsutzat jotzen diren gizarte entitate, toki entitate eta erakundeekin harreman sorta egin zen harreman-ehuna eratze aldera, elkarlanean aritu eta parte hartu ahal izateko hainbat arlotan; besteak beste, protokoloak prestatzeko lanetan.

Ez da modu formalean eratu inolako sarerik, berezko nortasuna duen erakunde gisa. Izan ere, goian aipatutako harremanek eta koordinazio lanek, Migratzaileen Foroaren aholkularitzari gehituta, legebiltzaren hasieran "Migratzaileak eta errefuxiatuak hartzeko Nafarroako Sarea" deitu zitzaion talde horri ezarritako helburuak eta zereginak beteko dituztela iritzi zaio.

Nolanahi ere, elkarlan hori estandarizatu eginen da eta funtzionamendurako mekanismo formalagoak antolatuko dira Harrera Protokolo Integralean aurrera egin ahala.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 16an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

## **Galdera, berdinen arteko mentoretza programari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, berdinen arteko mentoretza programari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-20/PES-00301), Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1.- Gutxi gorabehera 50 gazte daude, adingabe gisa iritsi eta gaur egun adinez nagusi direnak, eta integrazioarako berariazko baliabide bat behar

dutenak, adingabeei zuzendu ohi zaizkienetik kanpo. Departamentuak hainbatetan proposatu duen berdinen arteko mentoretza programa ezagun hori al da gazte horien beharriaz erantzuteko bidea?

2.- Ezezkotan, zer ekintza edo ekimen abiarazi dira pertsona horien integrazioarako baliabide hori garatzeko?

Hona hemen erantzuna:

"Kideak" programa berriaren bidez arreta ematen zaie Nafarroan familiaren babesik ez duten migratzaile gazteei. Laguntza eta mentoretza dira programaren oinarriak. Gaur egun lizitazio prozesua eta dagokion foru agindua prestatzen ari dira. Programa 2021ean abiaraziko da, 401.500 euroko aurrekontuarekin.

Erantzuna emanen die Nafarroara adingabe zirela iritsi eta gaur egun adinez nagusi diren pertsonen, gizarteratzeko baliabide bereziak behar dituzten unean.

Parlamentariak "Kideak" programari buruzko dokumentazioa nahi badu, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan ezarritako mekanismoen bidez eskuratu ahal izanen du.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 16an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

## **Galdera, toki entitateekin eta gizarte-entitateekin kulturen arteko bizikidetzarako ekintzak indartzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, toki entitateekin eta gizarte-entitateekin kulturen arteko bizikidetzarako ekintzak indartzeari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-20/PES-00302), Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1. Zer ekimen abiarazi dira legegintzaldia hasi zenetik, toki entitateekin eta gizarte-entitateekin kulturen arteko bizikidetzarako ekintzak indartzeko?

2. Zer bilera egin dira Departamentuaren eta tokiko entitateen eta gizarte-entitateen ordezkarien artean arazo horri heltzeko?

Hona hemen erantzuna:

Kulturen arteko bizikidetzarako jardueren eta ekintzen sustapena, neurri handian, halakoetarako dirulaguntzak emateko deialdien bidez gauzatu da. Dirulaguntzen 2020ko deialdian toki entitateak eta gizarte-entitateak bereizi dira. Hala, 97.397,5 euro jarri dira toki entitateei dirulaguntzak emateko eta 92.442,01 euro gizarte-entitateentzako.

Gainera, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak zuzenean zenbait jardura antolatu ditu Iruñean, Tuteran, Mendabian, Burlatan, Lodosan, Corellan, Buñuelen eta Berriozarren. Ildo horretan, prestakuntza jarduerak eta erakusketa bat kontratatu dira ZASKAren bitartez, Nafarroan atzerritarren edo beste etnia batzuetako pertsonen aurka erabiltzen diren diskurtso kriminalizatzaile, estereotipo, aurreiritzi, zurrumuru eta diskriminazioei aurre egiteko gakoak eta argudioak sakon aztertzea helburu dutenak, honako herri hauetan: Allon, Vianan, Berriozarren, Mendabian eta Burlatan.

Bilera asko egin dira Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, toki entitate guztiei eragiten dieten gaiez informatzeko; eta alde biko bilera egin dira Zuzendaritza Nagusiaren eta hainbat toki entitateen artean.

Gizarte-entitateei dagokienez, haiekin ere hainbat bilera egin dira kulturen arteko bizikidetzaren balioa nabarmentzen duten jarduerak sustatze aldera.

Bai gizarte-entitateak bai toki entitateak gonbidatuta egon ziren dirulaguntzen deialdiaren aurkezpenean, eta bertan azaldu zen zein ziren deialdiaren oinarriak eta haren bidez hedatu beharreko balioak, bai eta laguntzak eskuratu ahal izateko bete behar ziren izapide administratiboak ere.

Azkenik, nabarmendu behar da Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia lankidetzan ari dela

Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak egindako Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoan; plan horrek ere sustatzen ahal du kulturen arteko bizikidetzaren eta hainbat esparrutako administrazioen eta gizarte zibilaren arteko proiektuen antolaketa.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 16an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

## **Galdera, integrazioaren aldeko hiri eta eskualdeen sarearen barruan Europako ikuspegia eta begirada duten ekintzak indartzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, integrazioaren aldeko hiri eta eskualdeen sarearen barruan Europako ikuspegia eta begirada duten ekintzak indartzeari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hau egin du (10-20/PES-00303), Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zer ekimen abiarazi dira legegintzaldia hasi zenetik, integrazioaren aldeko hiri eta eskualdeen sarearen barruan Europako ikuspegia eta begirada duten ekintzak indartzeko?

Hona hemen erantzuna:

Nafarroa erkidego gisara sartu da Integrazioaren aldeko Hiri eta Eskualdeen Sarean. Horren antolatzailea Europako Eskualdeetako Lantaldea da (Europar Batasunaren aholku-organo bat). Toki entitateek, eskualdeetakoek, mankomunitatek eta autonomikoek informazio garrantzitsua

eta jardunbide egokiak partekatu ahal izateko plataforma da, migratzaile eta errefuxiatuak haien lurraldeetan gizarteratzearekin zerikusia duten gaietarako.

Integrazioaren aldeko hiri eta eskualdeen ekimenak helburutzat du eskualde, hiri eta herri inklusibo eta integratzaileak eraikitzen laguntzea, gizarte kohesioa sendotzeko eta migratzaile eta errefuxiatuak Europar Batasunaren lurraldean gizarteratu daitezen sustatzeko. Desinformazioaren eta zurrumurru faltuen kontra eta bizikidetzaren eta integrazioaren alde eginez eta xenofobiaren arbuioa agertuz, Nafarroa jatorri guztietako pertsonen eskubide eta askatasunen arloan Europako eskualde aurreratuenetakoa izanen da.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako udalengana jo du sare horri atxikitzera animatzeko, eta dagoeneko 20 udal baino gehiago batu dira sareari.

Gainera, aurreikusita zegoen Iruñean 2020ko maiatzaren 7an bilera bat egitea sarea udalei aurkezteko, haren zuzendaria aurrean zela, eta migratzaileak gizarteratzeko Europako bi proiekturen berri emateko, jardunbide egokiak partekatzeko modu gisa. COVID larrialdiaren ondorioz, ordea, bilera bertan behera geratu zen eta orain arte ezin izan da egin, larrialdiak indarrean dirauelako.

Bestalde, Europako AMIF funtsen deialdiei buruzko informazioa igorri zaie udalei, eta haiekin

bilera bat egin da deialdien nondik norakoak azaltzeko.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 16an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

---

## **Galdera, Ollokiko oinezkoentzako pasabide seguruari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Pérez Arregui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ollokiko oinezkoentzako pasabide seguruari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Pérez Arregui jaunak 10-20/PES-00304 galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako kontseilariak idatziz erantzun dezan. Bertan honako galdera hauek egiten ditu:

Zer konponbide emanen du Nafarroako Gobernuak Ollokiko oinezkoentzako pasabide seguru

gisa, trenbidea zeharkatzeko Uharterako norabidean?

Noiz gauzatuko da aipatutako jarduketa?

Galderei erantzunez, kontseilariak hauxe jakinarazten du: konponbide segurua eskaini nahian, Nafarroako Gobernuako Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiko Azterlan eta Proiektuen Zerbitzua oinezkoentzako ibilbide baten proiektua egiten ari da.

Proiektu hori amaitu arte ez dira ezagutuko ez jarduketaren xehetasunak, ez obrak egiteko egutegia.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 16an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

## Galdera, A-12 autobiarri eta Pirinioko Autobia deitutakoari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, A-12 autobiarri eta Pirinioko Autobia deitutakoari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Maiorga Ramirez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du A-12 autobiarren eta Pirinioko Autobia deitutakoaren eraikuntzaren ordainketa dela-eta. Hona hemen Lurralde Kohesiorako kontseilariak horri buruz ematen dion erantzuna: ekitaldi bakoitzean eskari kanonaren kobrantza dela-eta ordaindu beharreko zenbatekoak urtero kalkulatu dira, eta horretarako kontuan hartzen dira aurreko ekitaldirako onetsitako egiazko trafikoaren datuak eta emakida-kontratu bakoitzean zehazten den KPI-aldakuntzaren arabera eguneratutako tarifak. A-12aren kasuan, n-2ko iraileko eta n-1eko abuztuko KPI-aldakuntzaren arabera eguneratzen dira tarifak, eta A-21ean, berriz, n-1eko abenduaren 31ko aldakuntza aplikatzen da.

Ordainketak zazpi hilekotan egiten dira, konturako ordainketa gisa. Hurrengo ekitaldian, ordain-

dutako zenbatekoaren eta autobiak aurreko ekitaldian izandako egiazko trafikoa aplikatuz ateratako zenbatekoaren arteko aldea erregularizatzen da (Urteko Likidazio Ekonomikoa, ULE), kasuan kasuko alderdiaren mesedetan: emakidadunaren edo administrazioaren mesedetan.

A-21 edo Pirinioko Autobiarren kasuan, badago gainera Zerbitzuaren Azpiegituraren eta Kalitatearen Estatu Kanon delakoa (CEICS). Bera kalkulatzeko kontuan hartzen dira kontratuan ondorio horietarako jasotako autobia kilometroak, aurreko urteko abenduaren 31ko KPIaren arabera urtero eguneratzen den tarifa, eta zenbait koefiziente teknikoren ondorioz aplika daitezkeen kenkariak (horien balorazioa aurreko urteko egiazkoen arabera zenbatetsita aplikatzen da). Gainera, CEIC-Sarengatiko Urteko Likidazio Ekonomikoa ere badago. Hurrengo ekitaldian aplikatzen da, eta ekitaldi batean aplikatutako kenkariak erregularizatzen ditu, ekitaldi horretarako benetan onesten diren kenkariekin erkatuz.

Aurrekontuari dagokionez, aurrekontu-ekitaldi bakoitzari egozten zaizkio aurreko ekitaldiko abenduari eta uneko ekitaldiko azaroari dagozkion konturako ordainketak eta aurreko urteari dagozkion Urteko Likidazio Ekonomikoa.

Sistema horren arabera, 2020ko ekitaldirako zenbatekoak jada ezagunak dira. Hona hemen:

A-12 Bideko Autobia 2020					
	Ibilgailu mota	Ibilgailuak km/urteko 2019	2020ko tarifak	Urteko zenbatekoa BEZarekin	Aurrekontuko zenbatekoa
Eskari kanona	Arinak	304.116.825	0,1081	39.778.784,83	
	Astunak	37.771.087	0,1460	6.672.640,23	
<b>EK guztira</b>				<b>46.451.425,06</b>	
Estrakontserbazio kanona	Arinak	304.116.825	0,00665	2.447.076,03	
	Astunak	37.771.087	0,00896	409.499,02	
<b>Estrakonts. guztira</b>				<b>2.856.575,05</b>	
	Ibilgailu mota	Ibilgailu kop. 2019-2018 aldea	2019ko tarifak	Urteko zenbatekoa BEZarekin	
Ulea 2019 ek	Arinak	3.866.038	0,1078	504.278,26	
	Astunak	233.627	0,1456	41.159,47	
Ulea 2019 estrakont. K.	Arinak	3.866.038	0,00663	31.014,52	
	Astunak	233.627	0,00893	2.524,41	
<b>Ulea guztira 2019</b>				<b>578.976,66</b>	
(*) 158/2013 foru agindua erreserba 2. Tarte				-304.059,35	
<b>Guztira 2020</b>				<b>49.582.917,42</b>	<b>49.523.218,84</b>

(\*) Ekitaldi honetan Administrazioari itzuli zitzaion bide-zoruak sendotzeko lanetarako erreserbaren zati bat, emakidadunak gauzatu gabe utzitakoa; aipatu foru aginduaren bidez onetsi zen haren erregularazioa.



<b>A-21 Pirinioko Autobia 2020</b>					
	<b>Ibilgailu mota</b>	<b>Ibilgailuak km/urteko 2019</b>	<b>2020ko tarifak</b>	<b>Urteko zenbatekoa BEZarekin</b>	<b>Aurrekontuko zenbatekoa</b>
Eskari kanona	Arinak	143.119.655,00	0,0711	12.312.727,04	
	Astunak	6.815.692,00	0,0960	791.710,78	
<b>EK guztira</b>				<b>13.104.437,82</b>	
		<b>Ibilgailu kop. 2019-2018 aldea</b>	<b>2019ko tarifak</b>	<b>Urteko zenbatekoa bezarekin</b>	
Ulea ek 2019	Arinak	7.713.435,00	0,0705	657.994,58	
	Astunak	307.854,00	0,0952	35.462,32	
<b>Ulea EK guztira</b>				<b>693.456,90</b>	
	<b>Km</b>	<b>2020ko tarifa</b>	<b>2019ko kenkaria</b>	<b>Urteko zenbatekoa BEZarekin</b>	
<b>CEICSA</b>	<b>46.097</b>	<b>97.451,96</b>	<b>% 1,91</b>	<b>5.331.793,80</b>	
		<b>Aplikatutako kenkaria 2019</b>	<b>Egiazko kenkaria 2019</b>		
<b>Ulea CEICSa 2019</b>		<b>24.065,59</b>	<b>85.204,24</b>	<b>-73.977,76</b>	
<b>Guztira 2020</b>				<b>19.055.710,85</b>	<b>18.991.344,30</b>

2021eko ekitaldirako, kalkuluan erabiltzen diren aldagai ia guztiak ezezagunak dira: A-12aren kasuan ez dago 2020ko egiazko trafikoa- ren daturik kalkularen oinarriko, eta A-21aren kasuan, trafikoa- ren datuez gainera, ez dira ezagunak CEICSaren kalkulurako erabili beharreko kenkari koefizienteak, ezta 2020ko abenduaren 31ko KPIa ere, tarifak eguneratzeko erabili beharrekoa.

Ekitaldi guztietan aurrekonturako aurreikuspe- nek halako ziurgabetasun maila bat dute, baina 2021ean ziurgabetasuna areagotu egiten da bizi- tzen ari den pandemia egoeraren ondorioz.

Gainera, litekeena da berronkatzeko proposa- menak edota erreklamazioak egitea, Administra- zioak Covid-19a dela-eta onetsitako jarduketan eta erabakien ondorioz eta horiek emakidetan izandako eraginaren ondorioz.

Ziurtasunik gabeko egoera honetan erabaki da 2021erako aurrekontuan 50.358.000 euro jartzea A-12rako eta 19.600.000 euro A-21erako, 2020ko aurrekontuko zenbatekoen parekoak, eta une honetan uste da horrenbestez aurre egin ahal izan- nen zaiela kontratuko betebeharrak.

2021eko ekitaldiko lehen hiruhilekoan, aurreko urterako egiazko datuak jada ezagunak eta finko- ak direla, emakida kontratu- etan ezarritakoarekin bat etorri- z, ekitaldiko betebeharrak ezarri- ko dira.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamen- tuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatuta- koa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 16an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

## **Galdera, Osasun Departamentuko telefono-lineen saturazioari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasun Departamentuko telefono-lineen saturazioari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioko kide Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Osasun Departamentuko telefono-lineen saturazioari buruz (10-20/PES-00306). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horri buruz jakinarazten diona:

1. Zergatik dago oraindik konpondu gabe Osasun Departamentuko telefono-lineen saturazioa-

ren arazoa, pandemia hasi eta 8 hilabete iragan ondoren?

Pandemia hasi zenetik zenbait aldiz handitu dira telefono sare publikotik datozen sarrera eta irteera kanalak, asistentzia ereduaren aldaketek sortzen zituzten premia berriei egokitzuz. Oraintxe ez dago lineen saturaziorik, nahiz eta orduz geroztik noiz edo behin gorabeherak izan diren Nafarroako Gobernuaren ekipamenduko matxuren ondorioz. Guztiak konpondu dira.

2. Zer ekintza aurreikusten dira zure departamentuan arazo hori konpontzeko, eta zer epeetan?

Egiazki lineen saturazioaren arazorik ez dagoenez, eta Nafarroako Gobernuaren telefonian gorabeherarik ez dagoenez, ez da jarduketarik aurreikusten arlo horretan.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 16an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

## **Galdera, 5G telefonia mugikorraren hedapenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 5G telefonia mugikorraren hedapenari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioko kide Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 5G teknologia mugikorraren hedapenari buruz (10-20/PES-00307). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikun-

tzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horri buruz jakinarazten diona:

1.- Zer ekintza garatu gogo ditu Nafarroako Gobernuak 2021ean eta zer aurrekontu aurreikuspenekin, errazte aldera gure erkidegoan 5G telefonia mugikorra hedatzea?

Une hauetan 25.000 euroko gastua dago ezarrita 2021eko aurrekontuan, 5G sarearen sustapena eta hedapena erraztu eta eragiteko.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 16an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

## **Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan eta haren enplegu-agentzietan aurkeztutako kexak areagotzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan eta haren enplegu-agentzietan aurkeztutako kexak areagotzeari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du, jakin nahi baitu ea 2020ko martxoaren 14tik areagotu diren ala ez Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuan jarritako kexak (10-20/PES-00308). Hona Nafarroako Gobernu

Eskubide Sozialetako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzuan ez da kexen gehikuntzarik nabaritu 2020ko martxoaren 14tik hona, guztiz alderantziz baino.

Kexen kopurua aldatu egin da urte batetik bestera. Aurreko 6 urteetan 216 kexa aurkeztu dira, honela banatuta: 53 kexa 2014an, 46 kexa 2015ean, 37 kexa 2016an, 22 kexa 2017an, 18 kexa 2018an eta 40 kexa 2019an. Horrenbestez, urtean 36 kexa batez beste. 2020an, azarora arte 14 kexa aurkeztu dira, eta horietatik 13 aurkeztu dira martxotik aurrera. Beraz, aurtengo kexak aurreko 6 urteetan batez beste jasotakoak baino askoz gutxiago izan dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## Galdera, COVID-19aren krisia hasi zenetik enplegu-agentzietan arreta handitzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, COVID-19aren krisia hasi zenetik enplegu-agentzietan arreta handitzeari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak

galdera egin du, jakin nahi baitu ea enplegu agentzietan arreta handitu den osasun krisia hasi zenetik (10-20/PES-00309). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Enplegu agentziek askotariko zerbitzuak ematen dizkiete erabiltzaileei, eta ez dute guztiek antzeko bilakaera izan koronabirusaren krisia hasi zenetik.

Enplegu eskatzaile gisa izena eman duten pertsonen erreparatzen badiegu, martxoaz geroztik kopurua handitu egin da (% 9 eta % 27 bitartean) aurreko urteko hilabete berekin alderatuta. Hona-ko hauek dira datuak:

Agentziak	2020ko martxoa	2020ko apirila	2020ko maiatza	2020ko ekaina	2020ko uztaila	2020ko abuztua	2020ko iraila	2020ko urria
Altsasu	1.164	1.243	1.279	1.315	1.296	1.351	1.338	1.382
Agoitz	1.182	1.259	1.245	1.212	1.165	1.158	1.160	1.208
Iturrondo	13.855	14.856	15.011	15.453	15.467	15.205	14.701	14.939
Lizarra	3.076	3.254	3.258	3.314	3.282	3.248	3.065	3.214
Lodosa	2.222	2.150	2.103	2.390	2.428	2.308	2.026	2.111
Iruña -2- Zabalgunea	15.184	16.241	16.556	17.034	17.175	17.069	16.272	16.515
Doneztebe	1.136	1.184	1.200	1.189	1.264	1.268	1.230	1.275
Tafalla	3.288	3.512	3.553	3.726	3.716	3.587	3.474	3.526
Tutera	8.631	9.421	9.297	9.598	9.249	8.815	8.690	9.176
<b>Guztira</b>	<b>49.738</b>	<b>53.120</b>	<b>53.502</b>	<b>55.231</b>	<b>55.042</b>	<b>54.009</b>	<b>51.956</b>	<b>53.346</b>

Agentziak	2019ko martxoa	2019ko apirila	2019ko maiatza	2019ko ekaina	2019ko uztaila	2019ko abuztua	2019ko iraila	2019ko urria
Altsasu	1.136	1.156	1.079	1.062	1.063	1.088	1.108	1.096
Agoitz	1.024	981	932	877	883	881	891	973
Iturrondo	12.139	11.953	11.806	11.860	12.344	12.556	12.191	12.291
Lizarra	2.834	2.655	2.536	2.631	2.629	2.648	2.578	2.722
Lodosa	2.131	1.859	1.772	2.006	2.170	2.040	1.728	1.834
Iruña -2- Zabalgunea	13.767	13.599	13.267	13.454	13.964	14.090	13.824	13.982
Doneztebe	1.153	1.055	1.009	1.025	1.074	1.069	985	1.020
Tafalla	3.186	2.972	2.867	2.929	2.926	2.884	2.792	2.982
Tutera	8.358	8.080	7.700	7.814	7.705	7.526	7.410	7.789
<b>Guztira</b>	<b>45.728</b>	<b>44.310</b>	<b>42.968</b>	<b>43.658</b>	<b>44.758</b>	<b>44.782</b>	<b>43.507</b>	<b>44.689</b>

Urtarrilaren 16ko 7/2015 Errege Dekretuan aurreikusitako zerbitzuak eskaini zaizkien pertsonen kopuruak, aldiz, behera egin du (dekretu horrek Enplegu Sistema Nazionaleko Zerbitzu Zorro Bateratua onesten du). Zerbitzuok barnean hartzen dituzte banakako diagnostikoak, lana aktiboki bilatzeko jarduketak, laneratze zerbitzuak (lan eskaintzak), curriculuma eguneratzea, ibilbide personalizatuen diseinua, lanbide informazioko ekintzak, autoenplegurako aholkularitza eta abar. Ildo berean, emandako zerbitzuen kopuruak ere behera egin du. Datuak aztertuta, bi zerbitzutan ikusten da murrizketarik handiena: enplegu eskaintzetara bidalitako pertsonen kopuruan eta curriculum

eguneratzeen kopuruan. Lehen kasuan, enpresek eskaintza gutxiago aurkeztu dituzte eta ondorioz erabiltzaileei gutxiagotan eskaini zaie zerbitzu hori. Curriculum eguneratzei dagokienez, erabiltzaileen eskaria murriztu egin da, pertsona horiek jada beren datuak eguneratuak zituztelako, ziur aski.

Prestatutako banakako ibilbideen kopurua, aldiz, % 5 igo da aurreko urteko aldean. Beraz, areagotu egin dira orientazio zerbitzuen lana eta erabiltzaileentzako banakako arreta.

Honako hauek dira datuak:

Hasierako hilabetea	2020		
	Zerb.: Zerbitzuak hasi zaizkien pertsonen kop.	IBI: Hasitako ibilbideen kop.	Zerb.: Hasitako zerbitzuen kop.
2020ko martxoa	20.004	449	31.167
2020ko apirila	9.369	396	13.359
2020ko maiatza	14.677	475	21.438
2020ko ekaina	20.952	655	33.270
2020ko uztaila	15.181	660	23.582
2020ko abuztua	15.749	540	24.301
2020ko iraila	17.725	794	28.525
2020ko urria	16.859	611	25.843
<b>Guztira</b>	<b>130.516</b>	<b>4.580</b>	<b>201.485</b>

Hasierako hilabetea	2019		
	Zerb.: Zerbitzuak hasi zaizkien pertsonen kop.	IBI: Hasitako ibilbideen kop.	Zerb.: Hasitako zerbitzuen kop.
2019ko martxoa	20.458	626	35.165
2019ko apirila	18.184	731	30.453
2019ko maiatza	24.708	610	51.784
2019ko ekaina	22.893	550	42.788
2019ko uztaila	22.843	328	41.078
2019ko abuztua	20.835	431	35.615
2019ko iraila	24.305	530	46.512
2019ko urria	22.933	559	41.348
<b>Guztira</b>	<b>177.159</b>	<b>4.365</b>	<b>324.743</b>

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, COVID-19aren krisia hasi zenetik enplegu-agentzietan lan egiten duten langile-kopuruari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, COVID-19aren krisia hasi zenetik enplegu-agentzietan lan egiten duten langile-kopuruari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du, jakin nahi baitu ea enplegu agentzietan arreta emateko langileen kopurua handitu den osasun krisia hasi zenetik (10-20/PES-00310). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Martxoaren 16an, astelehena, NAOan argitaratu zen martxoaren 15eko 48/2020 Foru Agindua, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak emana, prebentzio neurriak hartzen dituen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren lantokietan eta haren erakunde autonomoetakoetan, koronabirusaren eboluzio epidemiologikoa dela-eta.

Foru agindu hori aplikatuz, martxoaren 16an Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (hemendik aurrera NL-NEZ) enplegu agentzia guztiak publikoari itxi zizkion, herritarrentzako zuzeneko arretarako beste zerbitzu batzuk bezala (CENIFER, NL-NEZeko Zerbitzu Zentralak). Langileek zerbitzuak ematen jarraitu zuten lantokian nahiz telelanean.

Osasun krisialdian, batez ere lehen egunetan, deiak nabarmen ugari ziren, eta arreta bermatu nahian hirukoiztu egin ziren bai telefono-lineen

kopurua, bai deiak hartzen zituzten pertsonen kopurua. Enplegu agentzietako eta Zerbitzu Zentraletako langileek ematen zuten arreta hori. Pandemiara garaietan, langile berekin, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko Probintzia Zuzendaritzaren eta Nafarroako Gobernuak Lan Zerbitzuaren eskura jarri zen NL-NEZeko 10 langilek osatutako lantaldia, enplegu erregulazioko espedienteak kudeatzen laguntzeko, langabeziako prestazioa aitortzen duten SMSak igortzeko, langabeziako prestazioen hartzaileen datuak grabatzeko, etab.

Maiatzaren 14ko 59/2020 Foru Aginduaren bidez arautu zen nola itzuliko ziren gutxinaka Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile publikoak aurrez aurre lan egitera lantokietan, Normaltasun Berrirako trantsizio planaren esparruan. Arau horrek ezarri zuen lantokiak publikoari ireki behar zitzaizkiola, aurretiaz hitzordua emanda eta edukiera mugatuta.

Ekainaren 22an enplegu agentziak berriz ireki zitzaizkion publikoari, azaldutako baldintzekin. Gaur egun honela ematen da arreta enplegu agentzietan: erabiltzaileak hitzordua eskatzen du telefonoz edo Internetez. Hitzordu hori egun bereko edo beranduenez biharamunerako ematen ari da, zein enplegu agentzietan eskatzen den. Norbaitek izapide bat presaz egin behar duenean, deitu eta berehala bideratzen zaio telefonoz. Eskatutako hitzorduaren egun-orduetan teknikari baten telefono deia jasotzen du eskatutako izapidea egiteko. Zerbitzua aurrez aurre eman behar denean, enplegu agentziara joateko egun-orduak eskaintzen zaizkio.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren orientazio-zerbitzuetan artatutako pertsonen buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren orientazio-zerbitzuetan artatutako pertsonen buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak

galdera egin du orientatzaileek 2015eko uztailetik artatutako pertsonen buruz (10-20/PES-00311). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Behean xehetasunez azaltzen da lanbide orientaziorako eta informaziorako zenbat zerbitzu eman dizkieten erabiltzaileei enplegu agentzietako Enpleguko goi mailako tituludunek (orientatzaileek), entitate laguntzaileetako orientatzaileek (2016ra arte) eta lanbide orientazioko zerbitzua emateko esparru-akordioko entitate adjudikazio-hartzaileetakoek (2017tik aurrera).

2015. urtea (uztailetik abendura)

Hasierako hilabetea	LANBIDE ORIENTAZIOA ETA INFORMAZIOA		
	Zerbitzuak hasi zaizkien pertsonak	Orientatzaileak	Ratioa
2015eko uztaila	8.274	43	192
2015eko abuztua	8.511	43	198
2015eko iraila	11.391	43	265
2015eko urria	10.889	43	253
2015eko azaroa	9.771	43	227
2015eko abendua	6.243	43	145

2016. urtea (urtarriletik abendura)

Hasierako hilabetea	LANBIDE ORIENTAZIOA ETA INFORMAZIOA		
	Zerbitzuak hasi zaizkien pertsonak	Orientatzaileak	Ratioa
2016ko urtarrila	8.912	43	207
2016ko otsaila	9.676	43	225
2016ko martxoa	10.683	43	248
2016ko apirila	10.519	43	245
2016ko maiatza	10.188	43	237
2016ko ekaina	10.078	43	234
2016ko uztaila	6.987	43	162
2016ko abuztua	7.567	43	176
2016ko iraila	10.653	43	248
2016ko urria	10.586	43	246
2016ko azaroa	9.314	43	217
2016ko abendua	7.723	43	180

2017. urtea (urtarriletik abendura)

Hasierako hilabetea	LANBIDE ORIENTAZIOA ETA INFORMAZIOA		
	Zerbitzuak hasi zaizkien pertsonak	Orientatzaileak	Ratioa
2017ko urtarrila	8.788	41	214
2017ko otsaila	8.099	41	198
2017ko martxoa	8.703	41	212
2017ko apirila	7.079	41	173
2017ko maiatza	8.625	41	210
2017ko ekaina	9.764	41	238
2017ko uztaila	7.016	41	171
2017ko abuztua	7.823	41	191
2017ko iraila	9.600	41	234
2017ko urria	9.523	41	232
2017ko azaroa	8.010	41	195
2017ko abendua	4.494	41	110



2018. urtea (urtarriletik abendura)

Hasierako hilabetea	LANBIDE ORIENTAZIOA ETA INFORMAZIOA		
	Zerbitzuak hasi zaizkien pertsonak	Orientatzaileak	Ratioa
2018ko urtarrila	10.544	45	234
2018ko otsaila	9.072	45	202
2018ko martxoa	10.075	45	224
2018ko apirila	9.817	45	218
2018ko maiatza	9.819	45	218
2018ko ekaina	9.354	45	208
2018ko uztaila	7.548	45	168
2018ko abuztua	7.553	45	168
2018ko iraila	8.706	45	193
2018ko urria	9.160	45	204
2018ko azaroa	7.469	45	166
2018ko abendua	6.512	45	145

2019. urtea (urtarriletik abendura)

Hasierako hilabetea	LANBIDE ORIENTAZIOA ETA INFORMAZIOA		
	Zerbitzuak hasi zaizkien pertsonak	Orientatzaileak	Ratioa
2019ko urtarrila	8.542	41	208
2019ko otsaila	8.478	41	207
2019ko martxoa	8.758	41	214
2019ko apirila	7.938	41	194
2019ko maiatza	8.142	41	199
2019ko ekaina	8.309	41	203
2019ko uztaila	7.379	41	180
2019ko abuztua	6.389	41	156
2019ko iraila	7.881	41	192
2019ko urria	8.667	41	211
2019ko azaroa	7.238	41	177
2019ko abendua	5.988	41	146

2020. urtea (urtarriletik urrira)

Hasierako hilabetea	LANBIDE ORIENTAZIOA ETA INFORMAZIOA		
	Zerbitzuak hasi zaizkien pertsonak	Orientatzaileak	Ratioa
2020ko urtarrila	7.354	40	184
2020ko otsaila	7.711	40	193
2020ko martxoa	6.346	40	159
2020ko apirila	3.994	40	100
2020ko maiatza	4.583	40	115
2020ko ekaina	6.517	40	163
2020ko uztaila	5.739	40	143
2020ko abuztua	5.369	40	134
2020ko iraila	6.890	40	172
2020ko urria	6.800	40	170

Azalduetako datuetatik honako hau ateratzen da:

- 2015. urtea (uztailetik abendura): 55.079 zerbitzu eman ziren. Arreta emateko langileak: 43. Urteko batez besteko ratioa: 213 pertsona teknikari bakoitzeko.

- 2016. urtea: 112.886 zerbitzu eman ziren. Arreta emateko langileak: 43. Urteko batez besteko ratioa: 218 pertsona teknikari bakoitzeko.

- 2017. urtea: 97.524 zerbitzu eman ziren. Arreta emateko langileak: 41. Urteko batez besteko ratioa: 198 pertsona teknikari bakoitzeko.

- 2018. urtea: 105.629 zerbitzu eman ziren. Arreta emateko langileak: 45. Urteko batez besteko ratioa: 195 pertsona teknikari bakoitzeko.

- 2019. urtea: 93.709 zerbitzu eman ziren. Arreta emateko langileak: 41. Urteko batez besteko ratioa: 190 pertsona teknikari bakoitzeko.

- 2020. urtea (urtarriletik urrira): 61.303 zerbitzu eman ziren. Arreta emateko langileak: 40. Urteko batez besteko ratioa: 153 pertsona teknikari bakoitzeko.

Garrantzitsua da azpimarratzea orientazio-eskaera guztiei erantzuten zaiela.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko enplegu-agentzietako orientatzaile bakoitzarentzat ezarritako arreta-ratioei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko enplegu-agentzietako orientatzaile bakoitzarentzat ezarritako arreta-ratioei buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du, jakin nahi baitu zein arreta-ratio ezarri den enplegu agentzietako Enpleguko goi mailako tituludun (orientatzaile) bakoitzarentzat (10-20/PES-00312). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Arreta-ratioa ezartzean kontuan hartu dira enplegu agentzietako Enpleguko goi mailako tituludunen batez besteko arreta eta Orientaziorako Esparru Akordioako entitate adjudikazio-hartzaileek emandako arreta-zerbitzuen batezbestekoa. Ildo horretan, orientazio prozesu batek 10 ordu irauten du, batez beste, laneratzeko zailtasun handiena duten pertsonentzat (desgaitasuna duten pertsonak eta baztertuta daudenak), eta 7 ordu gainerako pertsonentzat. Ordu kopuru horrekin, eta Enpleguko goi mailako tituludun baten urteko lanaldia 1.592 ordu dela kontuan izanik, hau litzateke urteko batez besteko ratioa:

- Kolektibo kalteberetako 160 pertsona teknikari bakoitzeko.

- Gainerako kolektiboetako 227 pertsona teknikari bakoitzeko.

Lanbide orientazioko zerbitzuaren adjudikazioa duten entitateen kasuan, urteko lanaldi luzeagoa dute (1.730 ordu), baina lanaldiaren % 10 proiektio-lanetan eman behar dute, lizitazioan ezarritakoaren arabera. Horrenbestez, ratioa honako hau litzateke:

- Kolektibo kalteberetako 157 pertsona teknikari bakoitzeko.

- Gainerako kolektiboetako 216 pertsona teknikari bakoitzeko.

Teknikariak ez du lanaldi osoa hartzen pertsonari orientazio zerbitzua emateko, lanaldiaren % 20 hartzen baitu prestalanetarako, espedienteak kontsultatzeko, informazioa biltzeko, datuak grabatzeko etab. Beraz, ratioak honako hauek lirateke, Enpleguko goi mailako tituludunaren urteko lanaldia kontuan harturik:

- Kolektibo kalteberetako 127 pertsona teknikari bakoitzeko.

- Gainerako kolektiboetako 181 pertsona teknikari bakoitzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, Iruñerriko trenbide-sare berriaren proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena iraungitzearen ondorioei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñerriko trenbide-sare berriaren proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena iraungitzearen ondorioei buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "Iruñerriko trenbide sare berriaren proiektua: trenbidearen kiribilgunea kentzea eta geltoki intermodal berria egitea" izeneko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena iraungi izanari buruz (10-20/PES-00313). Galderari erantzunez, Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak jakinarazten dio Nafarroako Gobernuak inpaktu-adierazpen hori iraungi izanaren jakitun dela, Parlamentuan 2019ko urriaren 29an adierazi zen bezala.

Hain zuzen ere, egun hartan Lurralde Kohesiorako kontseilaria, Bernardo Ciriza, Garraioetako zuzendari nagusi Berta Mirandarekin batera, Lurralde Kohesiorako Batzordearen aurrera agertu zen Prestazio Handiko Trena bultzatu eta garatzeko aurreikusitako jarduketaren berri ematera.

Bilkura hartan foru gobernuak hauxe azaldu zuen, hitzez hitz:

"Hurrengo blokea, Iruñerria-Arrizabalaga-Zuasti eremukoa, 24 kilometrokoa da, eta barnean hartzen du Arrizabalaga-Ezkirotz tartea egitea, 10,8 kilometrokoa, eta Iruñeko trenbidearen kiribilgunea kentzea.

Tarte horretako informazio-azterlanaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena iraungi zela eta, Sustapen Ministerioak 2018ko abenduaren 29an beste informazio-azterlan bat lizitatu zuen. Ekainaren 25ean adjudikatu zen, eta duela gutxi argitaratu da Estatuko Aldizkari Ofizialean."

Ingurumen-inpaktuaren adierazpena iraungi izanak sor ditzakeen ondorioei dagokienez, jakinararen gainean jarri da Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioa, alor horretan eskumena duena, behar den informazioa biltzeko.

Azkenik, Abiadura Handiko Trenaren Geltoki Berriko Esparrua eta Iruñeko Tren geltoki Zaharreko Esparrua garatzeko udalez gaindiko plan sektoriala dela eta, egokituz jotzen da, ezer adierazi baino lehen, informazio-azterlana eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena bukatuta egon arte itxarotea. Gogoan izan behar da bi gai horiek Estatuko Administrazio Orokorren eskumenekoak direla.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

## **Galdera, administrarien behin-behinekotasun luzeari buruzko epaiaren ondorioei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, administrarien behin-behinekotasun luzeari buruzko epaiaren ondorioei buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 20ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatzizko galdera bat egin du (PES-002314). Haren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

«2020ko martxoaren 19an, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak epaia eman zuen metatutako C-103/18 eta 429/18 auzietan. Epaia horretan, Madrilgo Erkidegoko Osasun Zerbitzuko estatutupeko langileen behin-behinekotasun egoera luzeari buruzko iritzia eman zuen, bai eta Iraupen Zehatzeko Lanari buruzko Esparru Akordioaren (1999ko martxoaren 18koa) 5. klausularen interpretazioari buruzkoa ere (1999/70 Zuzentarauaren eranskinean dago hori), behin-behinekotasunaren izaera abusuzkoari dagokionez.

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

– Aztertu al ditu Gobernuak epai horrek Nafarroako administrazioetan aldi baterako zerbitzuak –kasu batzuetan duela urte askotatik– ematen jardun duten langile guztien egoera juridikoan izan ditzakeen ondorio juridikoak edo bestelako ondorioak?»

Epaia horren edukia aztertu da, eta jada jorrazten ari da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen aldi baterako enplegua finkatu edo egonkortzearen gaia. Kontuan hartu behar da, gainera, helburu horretara bideratutako jarduketak guztietan funtsezko eskubide konstituzionalak bermatu behar direla, tartean funtzio publikoan sartzeko berdintasunaren, merezimenduen eta

gaitasunaren printzipioak (Konstituzioaren 14., 23.2 eta 103.3 artikulua).

– Ados al dago Nafarroako Gobernua kolektiboak eta bitarteko langileak epai horren ondorio juridikoei buruz ateratzen ari diren interpretazioarekin, baieztatzen baitute beren egoeraren konponbidea ezin dela izan egonkortze masiboko lan-  
eskaintza publikoak onestea?

Uste dugu egonkortzeko lan-  
eskaintza publiko onesteak lagundu lezakeela enplegu publikoko aldi baterako lanaren tasa nabarmen murrizten, eta ekitaldiz ekitaldi Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko legeetan ezartzen ari den ordezte-tasa kentzeak ere bai.

– Ados al dago Gobernua, halaber, esaten denean ezin izanen liratekeela lan-  
eskaintza publikoak egin plantilla organikoan hutsik dauden eta administrazio-kontratuekin edo bitarteko kontratuekin betetzen ari diren lanpostuetan?

Ez da inola ere halako jokabiderik ondorioztatzen goian aipatutako Europako epaitik. Enplegu publikorako sarbidea arautu behar duten berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioei jarraituz, lan-  
eskaintza publikoetan sartu behar dira behin betiko bete beharreko lanpostu huts guztiak, baita administrazio-kontratudun langileek dituztenak ere, eta langile horiei bermatu behar zaie dituzten lanpostu horien deialdietako hautaketa prozeduretan parte hartzeko eskubidea (edo antzeko lanpostuen deialdietako prozeduretan, ezin baita ahaztu lanpostu horiek, oposizio bidez bete baino lehen, lekualdatze-lehiaketan eskaini behar zaizkiela jada funtzionario diren pertsonen, beren mugigarritasunerako eskubidea bermatzeko).

– Gobernuaren ustez, 3 urte baino gehiagoz administrazio-kontratuekin edo bitarteko langileen kontratuekin lanpostu horiek guztiak betetzen dituzten pertsonen eskubidea al dute beren kontratuaren irmotasuna deklaratu dadin, nahiz eta funtzionario publiko gisa aitortuak ez izan?

Esan bezala, publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen errespetua bermatzen duen hautaketa prozedura bat gauditu behar da enplegu publikoan sartzeko, berriaz egindako deialdian; are gehiago xedea denean Administrazio Publikoaren zerbitzuan aritzeko lotura finkoa eskuratzea.

Kontratu baten titularrak funtzionario izaera eskuratu gabe ere kontratu horren "irrotasuna" deklaratzeko aukerak berekin ekarriko luke Administrazioaren zerbitzuko langileen kategorია berri bat sortzea, eta ez da halakorik aurreikusten Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginean. Beraz, kategoría horri aplikatu beharreko araubide juridikoak ez luke erregulaziorik izanen, eta garrantziko segurtasun juridikorik eza eraginen litzateke sisteman.

Horrez guztiaz gain, kontuan hartu behar da administrazio-kontratu batekin hiru urte baino gehiagoz aritu izana ez dela berez kontratazioan abusua egin dela uste izateko arrazoia. Izan ere, auzitegiek hainbat epaitan aitortu dutenez, ezin dira kasu guztiak batera hartu, eta banaka aztertu behar dira, zeren askotan, aztertutako administrazio-espeditentea ikusi ondoren, epai batzuek aldi baterako kontratazioaren justifikazio egokia onartzen baitute.

– Gobernuaren ustez, zein lege-ekintza egin edo lege-aldaketa egin beharko liriteke Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen araudian, baldin eta epai horri buruzko doktrinak interpretatzen badu Nafarroak arlo horretan dituen eskumen propioei eragiten diela?

Aipatutako epaiak dio administrazio publikoen aldi baterako kontratazioan abusuari aurrea hartu

behar zaiola eta gertatuz gero zigortu egin behar dela, eta enplegu publikoan egonkortasun handiagoa bermatzeko beharra nabarmentzen du; aspalditik horretan ari da administrazio hau, ukitutako pertsona guztien eskubideak bateragarri eginez – bai Administrazioan aldi baterako lan egiten duten pertsonenak, bai halakorik inoiz egin ez dutenak–.

Ildo horretatik, azken urteetan lan-eskaintza publikoak onartu izan dira, hala ordeztekoak nola egonkortzekoak, aplikatu beharreko araudiak onartzen zuen lanpostu huts kopururik handiena eskainiz. Horren harira esan beharra dago Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioari behin eta berriz eskatu diola lan-eskaintza publikoan langileen ordezte-tasa kentzeko, horrela Administrazioan aldi baterako lanaren tasa txikiagoa lortuko baita erabat errespetatuta funtzio publikoan sartzeko berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate baldintzak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko abenduaren 17an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## **Galdera, Parlamentuaren parean jarritako LKN hiri-artistaren kartela kentzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Suárez Benito jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Parlamentuaren parean jarritako LKN hiri-artistaren kartela kentzeari buruzkoa. Galdera 2020ko azaroaren 26ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari José Suárez Benito jaunak idatzizko galdera bat egin du (PES-00315), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

1. Zein izan zen aginte-katea, hau da, nondik etorri zen agindua, zeinaren ondorioz bi foruzainek kendu baitzuten joan den azaroaren 11n Parlamentuaren aurrean zegoen LKN hiri-artistaren kartela?

Foruzainek profesional gisa dagokien moduan jardun zuten; inongo agintedunek ez zuen aldez aurretik agindurik eman, eta ez dago departamentu honetan jasorik jarduketa egiteko berariaz agintzen duen prozedura edo dokumenturik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko abenduaren 21ean

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

